BOOKTEGI



Denbora erreala

HARKAITZ CANO



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

HARKAITZ CANO

Denbora erreala

Elkarrirakurriz

I

“Lehen aldia dela diozu?”.

Baietz esan dionean Mireiak berehala igarri du ez diola sinetsi. Agian polizia zela pentsatuko zuen trapiak, gainera. Bitxia da: infiltratuen filmak modan jarri direnetik, emakumezkoak gizonezkoak baino susmagarriagoak dira trapitxeroen begietara. Kontuak kontu: bi baino gehiago ez hartzeko eta koloreak ez nahasteko esan dio. Eta ez gidatzeko, inolaz ere, drogen eraginpean. Ez dakienik deus ez. Miretsita geratu da Mireia, hartu orduko ezkutatu baitu trapiak dirua, prestidigitadore batek bezala, inork non gorde duen ez bereizteko moduan. Hartzen ote du berak pilularik batere? Hartzekotan, gorriak ala berdeak? Biak, menturaz? Droga horien menpean ote dago une honetantxe? Dealer-ak txistu egin dio beste espaloian dagoen gazte marokoarrari. Bi uve osatu ditu hatzekin, Viva Verdi!, garaipenaren keinu bikoitza. Bi-ta-bi. Alegia, lau.

Halaxe eman dizkio marokoarrak bi pilula gorri eta beste bi berde. “Zuriak baino ez nituzke falta ikurrina osatzeko”. Drogazale abertzalea ote da? Sabinianoa? “Ez, berriro ez, Mireia: ez heure burua gain-aztertu”. Psikologo batek lana kontsultan utzi behar luke, nahiz eta, egiaz, Sanfraneko txiza-bazter honetara ere lanagatik etorri den... Hori da bokazioa izatea hori. Eta hartzen duen ardura profesionalagatik plusik kobratu gabe, gainera.

Nola emango zituen jarraibideak, hori zen kontua, nola inori pastila haiek uzteko aholkuak eman eta irtenbideak eskaini, berak droga haien xarma zehazki zertan zetzan jakin gabe? Jende asko ezagutzen zuen hartzen zituena, eta are gehiago ziren, noski, hartu arren hartzen zituenik aitortzen ez zutenak... Inkesten arabera, hemezortzi urtetik gorako hiru biztanletik bik onartzen zuen noizbait haietako bat, edo biak, hartu izana. Adin txikikoen daturik ez zen zabaldu, eta egunotan nerabezaroa zein azkar heltzen den ikusita, hobe agian ez jakitea.

Amaiarekin geratu da bazkaltzeko. Kontsulta berean lan egiten dute ahizpak eta biek eta saiatzen dira lanaz sobera ez hitz egiten, baina gehienetan saihetsezina izaten da.

-Mexikarrarekin txundituta jarraitzen dinat. Ipuin baterako emango luke.

-Non gordetzen zituen ba sugeak?

-Sotoan. Hi zer moduz kartzelako bisitetan?

-Olmorekin? Hainbestean, baina ezin uka inpresioa eragiten didanik…

-Nahi badun trukatuko dinat.

-Mexikarra askatuko huke niretzat, kartzelara heu sartzeko?

-Higatik edozer, ahizpatxo.

Hitz beste egin eta zirt-zart galdetu dio pastillena.

-Jakina hartu ditudala inoiz, hik ez?

-Ez ba.

-Baina Mireia! Ze mundutan bizi haiz?

Mendekotasuna zutenetako askok lanerako hartzen zituzten fasterrak. Horrela hasten ziren kontsumitzen, ezarian-ezarian eta lanorduak jasangarriago egiteko aitzakiaz. Zailagoa zen uztea, jakina, ia ezinezkoa ez esateagatik. Ikasleen artean ere gero eta ohikoagoa zen eskola orduen aurretik pilula berdeak hartzea, asteburuetan parranda moteltzeko eslouer gorriak ere erruz kontsumitzen zituzten arren. Terapiara etortzen zitzaizkion bikoteetan askotan azaleratzen zen afera. Maitemindu berriek elkarrekin hartzen zituzten eslouerrak, denboraren dilatazioa iniziazio erritual bihurtuz; sexu tantrikoari laguntzen ziola esaten zuten, edo sexu presatia tantriko bihurtzen zuela, hobeki esan. Urteen poderioz, harremanek aurrera egin ahala, apurka-apurka denbora errealean bizitzen hasten ziren bikote finkoak eta asperduraren balizak seinalatzen zituzten lehen fasterrak iristen hasten ziren, ezkutuan. Klasiko bat zen. Epidemia bat ez esateagatik. Bazen bikotekideari deus esan gabe elkarrekin partekatzen zuten aisialdian fasterrak ezkutuan hartzen zituenik, asteburuetako asperraldi haiek albait arinen igaro zitezen. Zure bikotea enteratzen zenean pizten zen liskarra, noski.

“Nola jarraituko dugu elkarrekin nik eslouerrak hartzen baditut eta zuk fasterrak?”.

Bi pertsona elkarrekin daude: batek denbora konpartitua agonia bezala bizi du eta bestea zeruan dago. Asimetria afektiboa hain muturrekoa ez izan arren, gerta zitekeen desdoitze ttipiagoren bat ere: bikotekidea bertsozale sutsua izan eta guk fasterra hartzea, demagun, ezin dugulako saio bat osorik jasan.

Bada aldiro boladako drogaren bat. Opioa izan zen behin. Gero kafea eta alkohola. Azukrea sartzen zaizu gorputzean eta hartzen duzu azukreak berak har dezazun nahi duen erabakia. Haxixa, kokaina, speed-a, crack-a, oxitozina, fentaniloa… “Osagarri” izena ematen zaie batzuei, osatu edo osotu egiten gaituzten oso ondo jakin gabe. Prozac-a. Melatonina. Serotonina... Kimika hutsa gara. Azken bost urteotako sukarra zen fasterrena eta eslouerrena.

“Elkarrekin drogatzen den familiak elkartuta irauten du”, esan ohi zen sasoi batean. Bai zera. Esan izan da hori inoiz? Batek daki.

-Nik ez nuen ba fasterrik hartu David Cronenbergen majarada hura ikusi genuenean!

-Baina zer axola dizu! Zuri ez dizu afektatzen, berdin-berdin ikusi duzu bertso- zozo-saioa!

Drogak aldatzen ziren; ez, ordea, bikoteen arteko sestrak.

“Ez da gauza bera. Desinkronizatuta gaude! Gauza ezberdinak nahi ditugu”.

Galdera ia-ia metafisikoa zen: posible da aldi ezberdinetan bizi eta gauza berbera nahi izatea?

Denborak bateratzea, hori izaten zen Mireiaren lanetako bat: psikologoa sinkronizatzaile bat zen, funtsean. Garaiarekin eta zeure buruarekin lotzen zintuen eta zure ingurukoekin, ahal izatera. Psikologo baten lana korapilo batzuk askatu eta beste batzuk lotzea da. Zenbat bider ez ote zien azaldu bere kontsultara etortzen zirenei kitxuen kipuak zer ziren? Sokatan korapiloak eginda idazten zuten beren historia; komunitate oso baten memoria geratzen zen korapiloen bidez idunekoetan jasoa. Jakinduria gorde eta transmititzeko korapilo-hizkuntza bat.

“Inbidia ematen didan, Mireia. Droga guztiak bezalakoak ditun hauek ere: lehen aldietan gehiago eragiten din… Jakin ezan, halere, etekina ateratzeko planifikazioa inportantea dela. Aldez aurretik asmatzen saiatu behar dun datorren tartea atsegina izango den ala ez. Ez dun beti erraza pastilla xuxena une xuxenean hartzea… Baina ikasiko dun, ahizpatxo, ikusiko dun!”.

Viva Verdi. Bi eta bi lau, lau aukera zituen berak ikasteko. Ez zitzaizkion hainbeste iruditu. Alditxartu egin zuen Sanfranera pilula gehiagoren bila itzuli beharko zuela pentsatze hutsak. Oraindik ez zituen probatu ere egin eta jada adiktu bat bezala pentsatzen ari zen. “Tira, Mireia, hauxe ez al dun bada Amaiak eskatzen zinana? Antizipazioa!”.

Hori irakurria zuen: “Antizipazioaren drogak” deitzen zitzaien. Antizipatzaile onak zirenek etekina ateratzen zieten. Besteek infernua bizi zuten lur gainean.

Sotoan gorde ditu pilulak, bidaiarako maleta ttipiaren barruko patrikan.

Gero, armairu gainean maleta gorde, sotoa utzi eta Iñakirengana eta umeengana igo da. “Batzuk sugeak eta beste batzuk pilulak”, otu zaio, Amaiaren bezero mexikarra gogoan.

Bizitza honetan eduki beharra dago soto bat norberarena.

II

Espetxeak ere, ez ote dira gizartearen sotoak, zelanbait? Hilean behin egiten du Mireiak kartzelarako buelta. Txarto pasatzen du. Ez hainbeste presoekin egiten duen lan bolondresagatik, hori biziki maite baitu. Arazoa hara sartu eta handik ateratzea izaten da: kontrolak, miaketak, mesfidantza begiradak, giro kargatua, susmagarri gisa ohartemana denak susmagarri bezala portatzeko daukan joera amorragarria… Horretaz badaki Mireiak zerbait: Espektatibek pizten dutena: begirada eragile izan zen Asís de Garate katedradunak zuzendu zion doktoretza tesiaren gaia. Cum laude.

Askotan entzun izan du Mireiak argindar poste handien ondoan bizi den jendea eragin magnetiko hark eragiten zion nekeaz kexatzen. Antzeko zerbait sentitzen zuen berak espetxera sartzean: besoak antxumatzen zizkion energia berun bat, airea paretik eskuekin apartatu beharreko materia solidoa balitz bezala, eta berak besoak enborrera itsatsita, ezin ore itogarri hura apartatu… Gaineratu horri askatasun ezak izerdiarekin eta lixibarekin duen lotura. Ate zigilatuen hotsa eta txirrinena. Bum eta klaska. Isiluneak eta zurrumurruak. Leihorik ez izateak dakarren soto usain zaharmindua. Soto eta zoko kiratsa. Aseptiko izan nahi arren likatsu bihurtzen zen egurats hura, inor asebetetzen ez zuena. Lekuak probisionaltasun aire bat zuen, baina han presoak ez zeuden behin-behinean. Kartzela baten arkitektura probisionala da hilerri baten arkitektura probisionala den hein eta neurri berean. Hasieran isiltasuna zirudiena ere ustezko isiltasuna baino ez zen; argi sorgailuen zurrumurrua zen zelataren soinu banda, eta bulego eta lokutorioetako aire girotu izoztuak talka egiten zuen udan patioetako sargoriarekin. Tenperatura gune ezberdinak elkarrekin gerran. Aire girotua zuten egoitzetatik bero-sapara aldatu beharra gogorarazle moduko bat zen: “Bada freskotasunik munduan, baina ez zeuretzat”. Bakerik ez zen han, ezta behin-behinekorik ere.

Mireiari, mingarria zaio bizpahiru orduren ostean bera irten eta bere pazienteek bertan jarraitu beharko dutela berrestea. Kartzelara egindako lehen bisitaz geroztik gertatzen zaio, eta ez da ohitzen, guztiz kontrakoa: bisitak bete ahala sentsazio hura bizitu egin da lausotu beharrean. Kontsultan alderantziz gertatzen zaio, Mireia beti dago leku berean eta kanpotik datozkio bisitariak. Espetxean berriz, aske ez den hainbeste jende hain leku mugatuan elkarrekin ikustean… Jende pobrea gehienik, beharrean zena eta beharrean zen jendeak baino bisitatzen ez zuena. Mandotu edo otzantzeko sistema oso ongi pentsatu bat da espetxe sistema, paradoxikoki zenbait preso berpiztu egiten dituena eta beste asko guztiz zanpatu. Loteria makur horren erdian sartzen zen Mireia: entzule zereginetan hasi eta psikologo bati zehazki ez dagokion animo-altxatzaile soil bihurtzera derrigorturik ikusten zuen bere burua nahi baino gehiagotan.

Kartzelako saskibaloi kantxa erakutsi zioten behin funtzionarioek, kartzelei buruzko iragarki bat edo bisita gidatu bat egiten duenak bezala, presoentzat bizitzeko moduko ingurune bat bazutela azaldu nahian edo. Kaltetarako suertatu zen: kiroldegietara joateari utzi dio geroztik, kiroldegiek kartzela ekartzen diotelako burura eta saskibaloiak askatasunik gabeko jendea. Neuronak hain modu gutiziatsuan korapilatzen hasten direnean, saiatu gero kipu hori deslotzen.

Bere lanaren zati bat zen deslotze haiek lantzea, baina besteenak deslotu ahala berari sortzen zitzaizkion ustekabeko korapiloekin, zer egin?

Olmo deitzeko eskatu zion lehen egunean, baina arraroa egiten zaio eta izenetik deitzen dio ia beti, Emilio. Hasi berri du barruan bete beharko dituen hogei urteetan hirugarrena.

-Barkatu, berandu nator: gaur goitik behera miatu naute. Zerbait gertatu da, Emilio?

-Istiluak izan dira. Jendea bere onetik aterata dabil, fasterrik ez delako aspaldian sartzen.

-Fasterrak? Hemen ere badituzue?

Galdera egin orduko damutu zaio. Inozoa bera. Non izan lezake faster batek zentzu gehiago espetxean baino?

-Denok hartzen ditugu: langileek zein presook. Pastilla gorririk ez duzu hemen aurkituko, hori ez… Berdeen eskasia dagoela da kontua, eta hori ez zaio inori komeni. Zainak airean gaude.

Orduan aitortu dio Olmok hamabi faster hartzen dituela egunero. Hamabi! Faster bakoitzak ordubete hamar minutura konprimatzen duela kontuan izanez gero, hamabi fasterrekin seiehun minutu (hamar ordu) aurrezten ditu egunero: bi egun eta erditik behin egun bat pasatxo kenduko luke eta 250 egunetik behin 104. Bi mila eta bostehun egunetan 1040… Kalkulua egina du: 7305 egun dituzte bere kondena osatzen duten 20 urteek…

Erritmo honetan fasterrak hartzen jarraituz gero, hogei urteko kondenari heren baten koska kenduko lioke. Eta kontuan izanik gauak lo pasatzen dituela… “Drogak dira presoaren lima”, bota dio erdi txantxetan Emiliok. Baina Mireiari ez zaio Olmoren irribarrea gustatu hizketan jarraitu duelarik:

“Portaera onagatik kondena murriztea baino hobe, ala?”.

Luze doa sikatea, ordea, eta giroa asko gaiztotu da espetxean. Labankadak ere izan omen dira. Drogak ez ziren akaso horretarako asmatu, labankadaka elkar garbitu ez genezan?

-Denbora ez zaizu azkarrago pasatzen, Emilio. Egin kontu drogek aldatzen dutena denboraren pertzepzioa dela, ez besterik.

-Niri berdin balio dit.

-Baina, pastillak gorabehera, hogei urte zaharrago irtengo zara hemendik...

- Ikusteke dago hori. Inork ez ditu fasterrak hogei urtez hartu, gure belaunaldia izango da lehenbizikoa. Ez dakigu epe luzera zer eragingo duten…

Horretan arrazoi du. Dozena erdi urte ere ez da orokortu direla. Parlamentuan ez legezko proposamen bat bozkatzekoa zen, oso polemikoa, fasterrak hartzen harrapatzen zituzten presoei zigorra luzatzea eskatzen zuena. Izan ere, korronte punitibistaren ustez, drogei esker denboraren pertzepzioa azkartzen zitzaienek modu arinagoan bizi zituzten itzalpean pasatako urteak, eta, askoren iritziz, hori ez zen inondik ere zilegi, zigorrak bere funtzio zentzagarria galtzen zuelako. Zertarako balio zuen kartzelan egoteak presoek ez bazuten denbora hura bertan pasa izanaren kontzientziarik? Legelari progresistek, aldiz, legeak kontzientziaren eta pertzepzioen arloan sartzeko zilegitasunik ez duela defendatzen zuten. Konstituzio Auzitegian zegoen afera, ez atzera ez aurrera.

Buruko minez eta haginetako minez atera da Mireia kartzelatik. Burukoa apurka-apurka pasa zaio, ez, ordea, haginetakoa. Dena ez da psikosomatikoa. Behingoagatik, poztu egin da haginetako minagatik. Haginlariari deitu eta hurrengo egunerako eman dio hitzordua, goizeko bederatzietan ttanko.

III

Iñakik umeei gosaltzen ematen dien bitartean sotora jaitsi da Mireia. Maleta ttipia armairu gainetik jaitsi, hura zabaldu eta barruko patrikatik atera ditu pilulak. Berdeetako bat hartu du, baina ez du oraindik irentsi nahi izan. Badaki hartu orduko eragiten duela. Kontsultara iritsi arte itxarongo du.

“Zozaya doktorea zain duzu”.

Fasterra irentsi du, urik gabe eta ezer gabe. Beldur latza dio haginlariari, ordea. Zalantza une baten ondore bigarrena zintzurreratu du. Zer? Gaizki egin du? Koloreak ez nahastearen araua errespetatzen ari da, behintzat.

Juizioko hagina da plaka gaur bertan nahi baduzu nahi dut ongi anestesiaren horrela kitto izotza jarri gero zenbat da mutualitatetik nator Asepeyo seguros eskerrik asko epel da kanpoan.

Ez daki zerekin alderatu. Umetan hoteletako ate birakarian sartu eta ate hark sartutako lekutik ziztuan kalera itzultzen zueneko sentipen euforiko hartaz akordatu da. Ene. Orain bai, uler dezake jendea zergatik engantxatzen den. Konturatu orduko zen kontsultan Mireia, fasterren eraginpean oraindik. Etorri zaizkion pazienteei apenas jarri ahal izan die arretarik goiz osoan, ezta fasterren eragina lausotu ostean ere. Eskerrak Amaia mexikarrarekin dagoen eta ez den jabetu.

IV

-Bi batera? Ez al dun arriskutsua hori?

-Zorabio galanta, Amaia, baina errepikatzeko irrikaz nagon! Ordubete bost minutura ekarriak!

-Habil kontuz, Mireia… Jonki bihurtu nahi al dun?

-Organismoari ez zion eragiten, hau ez dun heroina. Denboraren pertzepzioa baino ez dun aldatzen… Herorrek ere hartzen ditun, ala?

-Halere, habil tentuz. Hasiberri bat besterik ez haiz.

-Bide batez, noiz hoa egoitzara ama bisitatzera?

V

“Berdeak bakarrik?”.

Baiezkoa egin du Mireiak, aurrekoan erositako bi gorriak oraindik erabili ez dituela gogoratuz. Zer esaten du horrek berari buruz? Denborari aurrerantz bakarrik sakatu nahi dioten horien antzeko antsietate koadro baten pean ote dago? Emakume berdea ote da? Desoreka bat adierazten du? Animoari eusteko egunez estimulanteak kontsumitu eta gauetan lokartzeko lasaigarriak hartzen dituen jende koitadu horrekin akordatu da. Droga bat bestearen kontrako eragina duena, bata bestearen segidan. Batere ez hartu beharrean bi droga osagarri hartzea, hori al zen oreka, zinez?

“Dozena, ehun euroren truke”.

Azken biak opari, beraz. Beherapentxo eskuzabalagoren bat espero zuen apika. Merkea ez zaio iruditu, baina Mireiak ez dauka zerekin konparatu eta itzulinguruka ibili gabe ordaindu dio eskatutakoa. Oraingoan ere, airean ke bihurtu dira ziztuan berrogeita hamarreko bi billeteak. Bizum bat baino gardenagoa da gizon honekin ordainketa. Ikusirik fasterren kontu hau tabakoa erretzea baino puskaz garestiagoa ateratzen dela, Olmo kartzelan nola moldatzen ote den galdetu dio bere buruari. Hurrengoan galdetuko dio.

Zalantza egin du bat hartu ala ez, baina kontzientziaren zimikoak eragotzi dio. Gutxi egoten da amarekin eta hil artean egingo dizkion bisitetan “ongi” egon nahi luke. Ama bakarra dago eta denbora errealean bizi nahi du haren ondoan. Ez du pastilla berderik hartu. Areago, agian hurrengo bisitan gorria hartuko duela pentsatu du, bere kontzientzia lasaitze aldera, auskalo, amarekin denbora tarte luzeagoa pasatzen duela sentitzeko. Betiko kontuak aletu dizkio amak: ilar zopa kaskarra dela eta nahiago zuela fideoekin, beste bi lagun zendu direla, azkena ekarri zion liburua ez zaiola sobera gustatu, maitasunezkorik ez duela gura eta misterio nobelaren bat ekartzeko faborez hurrengoan… Umeez eta senarraz, ostera, ez dio deus galdetu.

-Iñakik eta umeek goraintziak bidaltzen dizkizute.

-A...

Alarma gorririk ez zaio piztu. Bere amak ez dauka memoriarekin arazorik. Tentela ere ez da, hori da kontua, eta badaki eskumuinik ez diotela egiaz eman, zurigarriak baino ez direla Mireiaren agur formalak. Mireiari gero eta kartzelago zaio zahar-etxea. Agian bi ereduak bateratu behar lirateke? Presoak, zaharrak zaintzen: kartzelak humanizatu eta zahar-etxeek espetxetik dutena aitortzeko modu bat litzateke. Abantaila ekonomikoez ez hitz egitearren. Mireiak ez du, halere, ezein alderdi politiko bere hauteskunde programan halakorik proposatzeko bezain ausart ikusten.

VI

Badira bi hilabete lehen fasterra hartu zuenetik eta gorririk ez du oraindik probatu. Berdeen bila, aldiz, birritan jaitsi behar izan du bere trapi kuttunarengana. Tarte honetan, Olmok ez dio argitu nondik ateratzen duen kartzelan drogak erosteko dirua eta bera ere ez da setatu, pertsonaia gero eta konplexuagoa eta deserosoagoa iruditzen zaion arren. Koaderno oso bat bete du jada hark kontatutakoekin. Baina une honetan kezkatzen duena eslouerrak hartzeko bere destenorea da. Ez ote dauka Mireiak bere eguneroko bizitzan luzatu eta iraunarazi nahi lukeen tarterik? Batezbestekoa baino pertsona zoriontsuagotzat du bere burua. Zer ari zaio gertatzen, orduan? Sotora jaitsi, maleta armairu gainetik hartu eta barruko patrikatik atera ditu pastilla gorriak. Kadukatzen ote dira? Ezezkoan dago, baina ChatGPTri galdetu dio, badaezpada.

"Ez, fasterrak eta eslouerrak ez dira kadukatzen. Osagai kimikoa urteetan egon liteke enkapsulaturik eta ez du bere eragin aktiboa galtzen. Dena den, bata zein bestea legez kanpoko drogak dira eta mendekotasuna sor lezakete. Adikzio bat daukazula uste baduzu, honako telefono eta webguneetara jo dezakezu laguntza eske: www.liverealtime/fasters&slowers/heretohelp.org …"

"Laguntza? Laguntza nik ematen dut. Nik hau nahi dudanean utz dezaket".

VII

Iñakiren gurasoekin afalduko dute igandean: fasterra.

Oso poliki hitz egiten duen jubilatu zozomikotearekin kontsulta: fasterra.

Txikienaren tutorearekin bilera ikastolan: fasterra.

Etxea goitik behera garbitzen duen bitartean: fasterra.

Umeak oporretan eta iskanbila etxean: fasterra.

“Ama, zer da faster?”.

Atezuan jarri da Mireia.

-Azkarrago, ingelesez.

-Eta ez al da pilula bat?

-Baita ere. Droga bati deitzen zaio horrela.

-Ba nik horrelako bat behar dut.

-Baina zer txorakeria da hori?

-Endikak esan dit berak probatu duela eta pasada bat dela.

-Endikak? Handia behar luke astakilo horrek pastilla, daukan ahotzar horrekin… Endika gezurti bat da. Gainera, umeek ezin dute hartu. Arriskutsua da.

-Eta helduentzat ez?

-Tira…

-Zuk probatu duzu?

-Nik ez, baina asko irakurri dut gaiari buruz… Kontsultara etortzen da jende asko, mendekotasuna daukana.

-Zer da mendekotasuna?

Nereak adierazi nahi, zenbat dakien, neba gazteari:

-Adikzioa, Unai.

-Eta zer da adikzioa?

-Gehiegi gustatzea eta gehiago… gehiegi nahi izatea.

Go-a eta gi-a gorabehera, Mireiak ez luke hobeto esango.

-Ah. Enamoratzea bezala orduan?

-Baina enamoratzea ona da.

-Nik ez dut nahi enamoratu.

-Baduzu denbora, bederatzi urte dauzkazu.

Mireiak ezin du gehiago itxaron. Sotora jaitsi eta bi eslouerretako bat hartu du. Gorde egin du bigarren pilula gorria, zer gerta ere. Iñaki komuna garbitzen ari da. Sargori da eta izerditan dago, Kashbad taldearen nikia soinean duela. Txikiegi geratzen zaio, baina gaztetu egiten du. Atzetik heldu eta besarkatu egin du: gerrikoa askatzen hasi zaio. Desira eta beldurra, balantzan. Beldurrak irabazten du ia beti. Edo pereza da, agian?

-Zer ari zara? Umeak kontsolara jolasten ari dira.

-Nik ere nahi nuke ba kontsolamendu apur bat… Joango gara gelara?

Muxua umela izan da, luzea. Interneten irakurri duena hobeto ulertu du orain: frame by frame… Eros-a fotogramaz fotograma destolesten da eta gerrikoa kentzearen ekintza hainbeste luzatzen da ze, larruaren usainak behiala izan zen txekorrari eta haren bizimoduari eta elikadurari buruz pentsatzeko parada ematen baitizu. Zure gerrikoak nola hausnartu zuen belarra bere aurreko errenkarnazioan. Puzzle bat mila piezatakoa, eta pieza bakoitzak merezi duen lekua. Barka, denbora. Gerrikoaren belarriak klink egin orduko zalduneria filmetako sableen talka hots metalikoak datozkizu burura; Sandokan eta Bruce Lee eta Toledoko aiztoak, hori guztia desiratzen duzun pertsona biluzteko promesa dilatatu baten baitan, zure sexua esnatu eta mikraz mikra pizten doan bitartean; suzko landare bat zerori zaren loreontzian gora, igokari eta bilkor, DNArena eta daratuluz sartutako brokena eta twister izozkiena den espiral batean. Mireiaren hatz puntak Iñakiren izterretan behera doaz, doazenean datozen kontzientziarekin, eta han dira desertuko karabanak eta Danakil basamortua eta berbereen itzal urdinak, eta egia biluzia eta duna leunak, zentimetro bakar batean trinkotuta, eta gorputzeko bilo guztiak zut eta aldarrikatzaile: badira mila plazer hil zaitzaketenak, eta hilko zaituzte, prefosta, baina asko falta da oraindik, ikaragarri falta da, hasi besterik ez zara egin eta leherketa bat frame by frame zer ote den aurresate hutsak plazera biderkatzen dizu. Edo seikoiztu, zehatzago.

Unai negarrez hasi den arte. Negarrez eta negarrez, ozen, oso ozen, ozenago, sinfoniko, operistiko, wagnertar, hedakor. Lanturu guztien ama hemen. Zirku baten karpape osoa betetzen duen irrintzi bozina negartia, eraso nuklear sonikoa.

“Nereak jo egin nau!”.

Nereak jo egin du. Jo egin du Nereak. Nereak jo du eta ez beste inork. Leporatze festa, hortxe. Iñaki eta Mireia bakea ekarri nahian. Baina ezin. Urrunegi dago bakea etxe honetatik, Uzbekistanen, Mongolian, Australiako Brisbane hirian. Negoziatu, negoziatu gehiago. Frame by frame. Baretu eta zigortu, zigortu ahala kexatu, sobietak altxatu, eskubideak aldarrikatu, injustiziaren bandera etxetzat duzun mundu arrotz eta zabalean barrena astindu. “Nor naiz ni?”, pentsatzen du Mireiak ,“Nikolas II.a tsarra? Errege absolutista bat? Nik larrua jo nahi nuen nire senarrarekin, besterik ez!”. Tragedia bihurtu den harramazka bat. Malkotan Unai, Amazonas bat amazuloaren masailetan. Gogor heltzen dio gerritik semeak, gerritik heltzen dio gogor, semeak eta ez beste inork, fruituak astindu nahi dizkion arbola bat balitz bezala eusten dio. Denbora izan du ama izan izanaz damutzeko eta ama izan izanaz damutu izanaz damutzeko gero, ze korapilo sorta da hau, ene! Ez al da inoiz bukatuko istantea mendetu deneko aldi astuna? Desira itzali da, Amazonas baten aurrean zer da ba giza sugarra? Desira itzali dela konturatu da, desira itzali dela konturatu izanak deprimitu du, deprimitu izanak gizatxartu du. Erretxin eta suminduta dago, jo eta hilko luke parean jartzen zaion edonor. Lur errea, kiskali usaina.

“Nork agindu ote dit niri eslouerra hartzeko?”.

Sotora jaistekotan egon da, baina badaki ezin duela, ez da hori irtenbidea: koloreak ez dira nahastu behar.

Gorri-gorri dago Unai; zigortuta eta kopeta belztuta Nerea. Horrela egongo dira ia beste bost ordu eta erdiz. Noiz kendu du Iñakik Kashbad-en kamiseta eta noiz jarri du alkandora zabal itsusi hori? Mireiaren bizitzako sei ordurik luzeenak izan dira. Gero, denbora errealean prestatu behar izan dute Iñakik eta biek afaria. Leher eginda dago, baina bedeinkazio bat iruditu zaio minutu batek hirurogei segundo besterik ez irautea.

VIII

Txokatuta atera da egoitzatik. Normalean ez du inoiz bere amaren gelako komuna erabiltzen. Arauen kontra doa eta oso deprimenteak iruditzen zaizkio, gainera: elbarrituentzako dutxa, gehiegi ez makurtzeko altuera egokitua daukan taza altua eta hormetako helduleku sendoegiak, dena da erabiltzailearen mugitzeko gaitasun urrisimoaren salagarri. Ez izateagatik, aterik ere ez du komunak. Hor txiza egiteak zorte txarra ekarri behar du nahitaez. Gaur, ordea, gehiago ezin eutsi eta baimena eskatu dio amari. Komuneko kateari tiratu eta eskuak garbitzen ari zenean izan da: ama ikusi du ispiluan tiraderatik zerbait ateratzen. Hegoaldera ematen du bere gelak eta argitsua da oso: garbi ikusi du nola eraman duen bere amak pastilla bat ahora. Berdea, jakina. Txantxaren bat egitekotan egon da, ama-alaben arteko konfiantzaren adierazgarri, “Zer zabiltza ama, zuk ere hartzen dituzu fasterrak?”; edo, irribarre trufati batekin bota ziezaiokeen natural-natural, “Amaiarekin ere berdeak hartzen dituzu? Nirekin hainbeste aspertzen bazara laburtuko ditugu bisitak, aizu”. Ez du halakorik egin, ordea. Zerk harritu du gehiago, ama drogatzen ikusteak ala amak berarekin egoteko gogo izpirik ez duela jakiteak? Ahaztu harritu. Jarri hor mindu. Urguiluak sofritu du, min egin dio amak bera paretik kentzeko zuen presak.

“Agian ez zakin zertarako diren ere!”.

Amaiak garrantzia kendu nahi izan dio.

-Gainera… Ziur fasterra zela? Ez ote zen erresidentzian ematen dioten beste mila pastilletako bat?

-Siestan sartu zenean gau-mahaian begiratu ninan gero. Dozena bat zeukanan.

-Ikusten dinat espezialista bihurtu haizela.

-Fasterrak zitunan, fijo.

-Amaren iguala alaba, orduan… Ez dun hik esaten fasterrak hartzen ditunala batez ere?

-Hik ez, ala?

-Ni zahartzen ari naun, ahizpatxo, denbora errealean bizi nahi dinat orain. Edo moteldu, gehienera jota. Eslouerrak nahiago. Badakin nire sekretua? Bakarrik nagoenean hartzen ditinat soilik, gosal-orduan edo eguzkia ezkutatzen ari denean… Argia astiro-astiro nola datorren eta nola doan. Hori dun nire biziotxoa. Hik hirea topatzea besterik ez dinat opa.

IX

Mireiak sotoan gordetzen ditu bere bezeroei buruzko oharrak jasotzen dituzten koadernoak: “Gero eta zalantza gehiago ditut Olmorekin. Sinesgaitzak zaizkit bere aurrekariak. Historia klinikoaren arabera eskuliburuko sadiko petoa zela jakin berri dut: genero-indarkeria dela eta espetxeratu zuten. Emaztea hil zuen. Jakinaren gainean nengoen. Baina hau ez nekien gaur arte: hiltzen zuen bitartean emazteari eslouerrak eman zizkiola argitu zuen autopsiak. Izatez, bien odolean agertu zen pilula gorrien arrastoa. Olmok gozatu egiten zuen sufriaraziz eta bere biktimari sufrimendua luzatzen ari zela jakiteak are gehiago gozarazi zion. Goragalea eragin dit. Moralaren eta profesionaltasunaren arteko gatazka. Ez dakit halako preso batekin lanean jarraitu beharko nukeen. Amarekin gertatu denaren ondoren, ez nago nire onenean”.

Lankide batek baimena hartu du ama izateko. Zoriontsu dirudi. Hari begira, ezin izan du burutazioa saihestu: fasterrak edo eslouerrak hartuko ote ditu? Ama berdeak eta ama gorriak badira? Maite du haurdun egotea eta luzatu egin nahi du eslouerrekin haurdunaldiaren bizipena, ala fasterrak hartzeagatik dago lankidea zoriontsu, denbora azkarrago doakiolako hartzen ari den pilulei esker? Haurdun egonik pilulak hartzeak badu eraginik fetuan?

Amaiarekin hitz egin du: buruari buelta asko eman ondoren, utzi egin dio kartzelako lan bolondresari eta mexikarrarekin trukatu dio Emilio Olmo. Psikologoek ere trafikatzen dute bezeroekin.

-Izango du izenen bat mexikarrak, ala?

-Carlos da. Carlos Monfuentes.

X

Iñaki arraro dago eta monosilaboekin erantzuten du: fasterra.

Psikologia Kliniko Kongresu bat Reimsen: fasterra.

Alabaren hockey partida: fasterra.

Amari bisita egoitzan: Viva Verdi, bi faster.

XI

Amaiak arrazoi zuen: aspaldiko kasurik interesgarrienetako bat da Carlos Monfuentes mexikarrarena. 35 urte urte ditu. Gaixotasun larri bat. Autolisi errepikatuen kasua zirudiena beste zerbait bihurtu da. Internet bidez suge pozoitsuak erosi eta xaxatu egiten ditu morroiak bere etxeko sotoan, propio ziztatu dezaten. Itxuraz, biriketako minbizia diagnostikatu ziotenean ez zuen bere burua ohiko bideetatik artatu nahi izan. Terapia alternatiboen bila zebilela, C. Taguet mediku eta ikertzaile frantsesaren berri topatu zuen sarean: sendabiderik ez zuten tumoreak sugeen pozoiarekin sendatzen saiatu zen 1930eko hamarkadan. Kriskitin-sugeekin hasi zen lehenbizi Taguet, baina kobrak eraginkorragoak zirela konturatu zen berehala. Bere sasoian eskandalu handia eragin zuten ikerketen arabera, tumoreen tamaina ttipitzea lortu zuen eta egun ere indarrean dauden hainbat ikerketa ildo zabaldu zituen, nola sugeen hala bestelako narrastien pozoien erabilera dutenak abiapuntu. Jendeak hainbeste izu hartu dion physalia physalis, marmoka portugaldarra bezala ezaguna denaren pozoia ere ikertzen ari dira, globulu gorriak zeharkatu eta suntsitzeko duen gaitasun toxikoa moduren batean erabiltzeko aukera aztertze aldera. Kontua da zelula onak zein txarrak, denak txikitzen dituela pozoi hark. Ez da ezer pozoiei buruz Monfuentesek ez dakienik.

-Badakizu marmoka portugaldarrak ez direla izatez benetako marmokak, ezta?

-Irakurri dut zerbait Carlos, baina ikerketa horietan toxinaren zati bat erabiltzen da, modu kontrolatuan… Marmokei zeure burua bazka gisa eskaini edo basamortuan biluzik piztien artean zilipurdikatzeak ez dizu onurarik ekarriko…

-Ez nago horren ziur, andrea. Baduzu Bill Haasten berri? Suge pozoia ziztatzen zion bere buruari egunero, antigorputzak sortzeko. 170 suge ezberdinen ziztadak jasan zituen eta ehun urtez bizi izan zen… Koloso bat zen.

-Bill Haast euskalduna izan nahi duzu, beraz?

Mireia konturatu da Monfuentes ez dela hain harroa ere:

“Bill Haast bakarra dago, andrea… Gainera, ni mexikarra naiz.”

Alkandorako mahuka altxatu eta sorbaldako tatuajea erakutsi dio: gizon segail bat, orkestra zuzendariarena dirudien keinu bat egiten. Bere aurrean, orkestraren ordez, kobra zutun bat, mihia kanpoan duela. Elkar hipnotizatzen ari dira sugea eta Bill Haast, nor baino nor? Eta Mireia eta Carlos? Monfuentes honek badu halako je ne sais quoi bat.

Gauean, etxerakoan, sotora jaitsi da bere ordenagailu eramangarriarekin. Bill Haasten webgune ofiziala arakatzen eman du tarte luze bat.

Erabat katigatu da pertsonaiarekin.

Carlos Monfuentesen hurrengo kontsultaren aurretik eslouer bat hartu duenean konturatu da galduta dagoela. Bereak egin du.

Profesionaltasunez galdetzen saiatu da, begirada koadernotik altxatu gabe.

-Fasterrik edo eslouerrik hartzen duzu?

-Ze zerikusi du horrek nirekin?

Politoxikomaniari buruzko zerbait nahasia murduskatu du Mireiak, baina agerian geratu da galdera desapropos hark interes ezkutu bat zuela. Ezin izan du masailgorritzea saihestu. Ziztadak eta ziztadak daude. Monfuentes jauna jakinaren gainean dago eta serio-serio etorri da arrapostua:

“Nik ez daukat drogak hartzeko denborarik, andrea”.

Lehertu arte ez da Mireia jabetu zenbat denbora zeraman algararik egin gabe. Eta hau ez da edozein barre izan: frame by frame. Ez du berak aurreikusi adina iraun pozak, ordea. Ahizparen mezuak bata bestearen segidan sartu zaizkio. Azkena irakurri du lehenbizi: “Ama hil da. Deitu”. Badira aurreikusi ezin diren kolpeak.

“Ama”, xuxurlatu du, indarge, ia barrurantz hitz eginez, akordu garratz bat listuarekin irensten duenak bezala. Listua zer da? Pozoitxo bat, menturaz, norberak sortua.

XII

Bata bestearen atzetik eta enpatxurik gabe hartu ditu pastilla berdeak amaren beilak, hiletak eta lurperatzeak iraun duen egunetan. Amaia konturatu egin da, baina ez dio ezer esan. Mireiaren portaera berbera da, funtsean, erlojua bere kabutarako baino ez da azkartzen. Amaiak irakurria du kontsumo mota horrek, zenbait ikerketen arabera, memorian arrasto gutxiago uzten duela, fasterrek oroitzapenak lausotzen dituztela eta eslouerrek ainguratu.

"Heuk ikusi, baina psikologoak gaitun, Mireia. Nik bezain ondo dakin doluak epe bat behar duela".

Amaiak arrazoi du, baina egun haietatik gehien gogoratuko duena fasterren efektua pasatzean etxeko sotora nola jaisten zen izango da. Maleta ttipia armairu gainetik jaitsi eta barruko patrikatik pilula berdea nola hartzen zuen, denbora ostera ere azeleratzeko. "Pastilla berdeak hartzen zenituen, ama? Ba fasterrak ordainetan".

-Ez dion inoiz barkatuko? Gure ama dun.

-Zunan. Beste denbora batean.

XIII

“Lehen aldia dela diozu?”.

Izan liteke zirkulu bat. Izan liteke erloju bat. Erloju baten esfera. Hala balitz, lau aulki faltako lirateke gauerdira iristeko, zortzi baitira terapista bera barne. Haietako bat berria da. Aitortu duen bezala, gaur da etortzen den lehen aldia. Soa altxatu duenean zutik jarri izan balitz bezala izan da. Badago jendea begiradarekin ahalmen hori duena, betileetan zangoak balitu bezala.

“Mireia dut izena, psikologoa naiz eta kronomendekotasuna daukat”.

Aho batez erantzun diote gainerakoek:

“Ongi etorri, Mireia”.

Badira lau aste ez duela ez fasterrik ez eslouerrik hartzen. Badira lau aste ez dela sotora jaisten. Lau aste “garbi”. Garbi? Barregarria iruditzen zaio hitz hori. Bere existentzia eta bere esanahia.

Astebete baino ez da Iñakiri egia kontatu eta ohe banatan lo egiten hasi direla.

“Bezero batekin maitemindu naiz”.

Kronomendeko anonimoen bileratik atera orduko zain du Carlos Monfuentes. Irribarre egin dio ikusi orduko, baina gero eta argalago dago. Mireiari batzuetan iruditzen zaio, sugeek egiten duten bezala, azala mudatzeko zorian dela Carlos. Baina ari da bestelako korapilo absurdoak ere buruan lotzen. Demagun hau: “Carlos Monfuentes izena baduzu ezin duzu gazterik hil. Ez litzateke logikoa”.

Tratua egin dute: pozoien kontuak funtzionatu ezean, minbiziak aurrera jarraitzen badu eta gaixotasuna erremisio bidean sartzen ez bada, pastilla gorriak hartzen hasiko dira biak, elkarrekin geratzen zaizkien hilabeteak ahalik eta gogoangarrienak izan daitezen.

Pasa dadila bizitza poliki eta ez motel.